


Iparrorratza

Iparra galduta zabiltza? Egin dezagun, hortaz, iparrorratz bat, erraz-erraz.


Behar dituzu

- CD bat, Ken Zazpirenak balio du
- CDak gordetzeko kutxa bat
- Iman txiki bat
- Kola
- Errotuladore bat



Zer egin

1. CDan, **N**, **S**, **E** eta **W** letrak marraztuko ditugu, errotuladorearekin. Letra horiek nazioarteko ikurrak dira, eta iparra, hegoa, ekialdea eta mendebaldea adierazten dituzte, hurrenez hurren. Kontuan izan **N** eta **S** CDaren goiko eta beheko aldean marraztu behar direla, **E** CDaren eskuineko aldean, eta **W** ezkerrekoan.
2. CDak gordetzeko kutxa urez bete erdiraino. Kolaz itsatsi imana CDari, **N**-a dagoen lekuan, eta utzi flotatzen kutxaren barruan, irudian ageri den moduan.



Zertarako erabili iparrorratza?

Mendian ez galtzeko, adibidez! Hartu mapa bat, gustuko duzun leku batena. Maparen ertz batean, iparrorratz bat azaltzen da marraztuta.

Aurkitu marrazki hori, eta horren **Na** zure iparrorratzaren **N**-aren noranzko berean jarri. Hori da mapa zuzen jartzeko modua. Horrela eginez gero, ez zara berriz galduko!